

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

**IDAZKARITZA NAGUSIA****Foru Gobernu Kontseiluak 2025eko irailaren 9ko ohiko bilkuran onetsitako ebazpenen laburpena****— Foru Dekretuak:****LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA**

32/2025 Foru Dekretua, irailaren 9koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea kontzejuetako errejidore eta bokalak hautatzeko prozeduran erabili beharreko gaiei eta inprimakiei.

**— Erabakiak:****EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA**

523/2025 Erabakia, irailaren 9koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko lanen kontratua aldatzeari. Kontratu hori Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 14ko 732/2023 Erabakiaren bidez adjudikatu zen.

524/2025 Erabakia, irailaren 9koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan paperaren eta kartoiaren frakzioa biltzeko, kudeatzeko eta biltzeko zerbitzu-kontratua Garbialdi SA enpresari lagatzeko eskritura publikoa jasotzeari, eta enpresa lagatzaileak aurkeztu eta ebazteke zeuden eskaerak ebazteari.

**LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA**

525/2025 Erabakia, irailaren 9koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea kontzejuetako errejidore eta bokalen hauteskundeetarako deialdia egiteari 2025eko azaroaren 23rako.

**NEKAZARITZA SAILA**

526/2025 Erabakia, irailaren 9koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea nekazaritza ustategietan inbertsioak egiteko laguntzen deialdiaren ebazpena bideratutako diru esleipena handitzeari. Deialdia Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 11ko 76/2025 Erabakiaren bidez onetsi zen.

**KULTURA ETA KIROL SAILA**

527/2025 Erabakia, irailaren 9koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea gebaratzen dorre-jauregian obra proiektua idazteko eta obrak egiteko lanak Teusa técnicas de restauración SAr adjudikatzeari, 814.000,00 euroan, BEZa barne. Proiektua idazteko epea: hilabete; eta obrak egiteko epea: zazpi hilabete.